

**LES MISÉRABLES (MISERABLEAK) • Frantzia**

Fred Cavayé (zuzendari eta gidoilaria)
Tahar Rahim, Camille Cottin eta Benjamin Lavernhe (antzezleak)
Olivier Delbosc eta Richard Grandpierre (ekoizleak)

Cavayé: “Iraultzak bata bestearen atzetik gertatzen dira, baina biktimak beti berberak dira”



Camille Cottin, Fred Cavayé zuzendaria, Tahar Rahim eta Benjamin Laverhe.

JORGE FUEMBUENA

SERGIO BASURKO

Les Misérables 178 minutuko drama monumentala da eta Victor Hugoren eleberrri ospetsuan murgiltzen gaitu enegarren aldiz, Jean Valjean pertsonaia nagusiaren peripezia latzak ardatz hartuta. Zuzendariaren arabera, “aurreko egokitzapenetan baztertuta geratu ziren eleberriarren zenbait alderdi berreskuratzea izan da filmaren helburuetako bat”.

Istoria XIX. mende hasierako Parisen kokatzen da, desberdintasun sozialak, pobrezia eta gatazka politikoak nagusi ziren garaian. Paris ez da dekoratu hutsa; gizartearen arazoak erakusteko eta pertsonaien gatazkak indartzeko erabiltzen den eszenatokia da.

Zinemagileak bereziki aldarrikatu du XIX. mendean idatzitako obra honen gaurkotasuna. “Victor Hugok

eleberrri hau idatzi zuenean, bazekien zerbait unibertsala eta denboraz kanpoko sortzen ari zela”, adierazi du. Cavayérentzat, eleberriko gai nagusiek gaur egun ere indarrean jarraitzen dute: “Ezjakintasunak eta miseriak”. “Iraultzak bata bestearen atzetik gertatzen dira, baina biktimak beti berberak dira”, gaineratu du.

Cavayék, gainera, eleberriarren ikuspegi manikeoa baztertu du, eta gogorarazi du garai bakoitzak bere populazio esplotatuak dituela. Hugok proposatzen duen erantzuna, azaldu duenez, anaitasuna da. “Inozo samarra dirudi, baina inozentzia horretara itzuli behar dugu”. Bere ustez, “benetako enpatiarantz” aurrera egitea eta “geure ziliborrari begiratzeari” uztea ezinbestekoa da: “Bestela, ez da ezer aldatuko. Ezjakintasuna eta miseria dauden bitartean... Eta oraindik badaude”.

Tahar Rahim, Camille Cottin eta Benjamin Lavernhe aktoreak ere prentsaurrekoan egon dira. Vincent Lindon falta izan da, nahiz eta parte hartuko zuela iragarrita zegoen.

Lavernek filmaketan bizi izan zuten giro berezia gogoratu du: “platoan zerbait sakratua zegoen”, ziurtatu du. Taldeak bazekien *Miserableak* bezalako obra bat egiteak erantzukizun handia zekarrela eta, aktorearen arabera, guztiak “ahal zuten guztia” eman zuten istorio hori kontatzeko. Cavayék ere antzeko sentsazioa izan du, eta adierazi du aurretik egindako zortzi filmetan ez zuela inoiz talde osoaren artean halako batasunik eta elkartasunik sentitu.

Cavayék, halaber, filmeko aktore-taldea eta interprete handiak biltzeko duen zaletasuna nabarmendu ditu. Vincent Lindonen kasuan, transmititzen duen “gizatasuna” azpimarratu

du, baita bere “presentzia itzela eta intentsitatea” ere; eta Noémie Merlanten kasuan, berriz, haren “indarra eta boterea”. “*Miserableak* antzezteko, interpretazioaren maisuak behar dira”, laburbildu du.

Istorio zabal honetako pasadizo ugariak erritmo oso bizkorrean korapilatuz, pelikulak ekintzarako eremu aproposa aurkitzen du (zalapartak, herri zapalduaren asaldura, kartzelen eraistea, tiroketak, jazarpenak, barrikadak 1832ko Parisko altxamenduan, etab.), eta melodrama eta arketipoetan sakon murgiltzen da. Victor Hugoren material literarioa, ‘western moderno’ bilakatzeko ahaleginak, aldi berean, ikuskizun handi oso bihurtzen du filma, mila ez badira ehunka aktore eta figurante dituen. Gaur egungo ikusleari zuzendua, nahiko entretenigarria da, aldiz, nazioarteko jaialdi baten lehiarako aukera bitxi samarra.

Les Misérables, the epic lives on

Fred Cavayé unveils his new adaptation of Victor Hugo's *Les Misérables* in the Official Selection, bringing a fresh, modern cinematic style to the 19th-century classic. Described at the press conference as a thrilling blend of suspense, historical drama and literary epic, the film explores aspects of Hugo's novel rarely seen on screen. Cavayé drew on both the original text and Hugo's biography, particularly his opposition to the death penalty and defence of social justice. Rather than repeat previous adaptations, he focused on the characters' biographies, notably Inspector Javert, whose experience of abandonment helps explain his obsession with order and the law. The cast, including Vincent Lindon, Noémie Merlant, Camille Cottin, Tahar Rahim and Benjamin Lavernhe, brings new depth to these iconic figures. For Cavayé, the film's message remains strikingly relevant: amid inequality and hardship, empathy, solidarity and compassion are still essential.

icaa.es

@ cineicaa f cine.icaa
x cineCAA in cineicaa

Premio Nacional de Cinematografía 2026

Carmen Machi

© Caterina Barja